

EMAKUMEAK

Badegu emakumeok jazkera-moda berria. Egia esan, ez ain berria ere. Gutxi-gora-beera, antziñako klasikoa bait-da.

Moda berri onen xectasun nagusienak auetxek dira: bizkar borobillak, gerria bere tokian, gona malguak...

Beraz, bakuntasuna ta *naturalitatea* dira udaberri ontako modaren oñarriak.

Joan ziran beraz betiko, edo beintzat aldi luze baterako, *trapezio*, *zaku*, *ligne vent debout* eta beste orrelako oraingo *xelebrekeri* oriek.

Eztago esan bearrikan noski, moda au Paris'ko modista-etxeak jaurtigi dutela. Batez ere, Cristian Dior, Jean Patou ta Nina Ricci-etxeak, diotenez.

Gaiñontzean, ta koloreei buruz, kalerako jantzietan beñepein, urdiña erabilliko omen da bereziki. Baña ez edozeiñ urdin, baizikan, eta ain zuzen, itxas-urdiña. Ta, gañera, kolore zuriez zerbait nastuta.

Kolore urdiñ ori —diote— itsasotikan irten eta, бага baten gisara, erri guzietako kaletan zabalduko omen da...

Gauza auek geienak Ives Saint Laurent'ek sortuak izan bear dute. Saint Laurent au Cristian Dior zanaren etxeko *modelista* gazte bat da, ta oso itxurazko gizasemea ezpada ere —errettratoetan apaiz-gai ernegatu bat dirudi—, badu iñolaz ere mutillak buruan, illea baño zerbait geiago. Orain illabete batzuek, Frantzia'ko *héros national*, deitzen zion *New York Times*'ek...

* * *

Oraindik ere egunkari ta aldizkari batzuetako orrialdetan idazten da aldiz-aldiz Greta Garbo'z.

Aldizkari orietako batek zion lengo illean, Greta'k, orain ogeita bost-bat urte, esan zuala: "Ni ez naiz beñiere ezkonduko. Nik ezte senar bat baizik; nere lana."

Ta esan ta egin, noski.

Beste zertxobait ere ernagarri-samarra irakurri genuen aldizkari ortan bertan Greta Garbo'z. Alegia, orain urte batzuek, bere Erri'ko Gobernuak —Suezia'koak— korreo-sillu berezi bat atera zuala, zinemako ain izen aundiko arte-lari izan zanaren irudiarekin.

Erregin bat edo beste izan ezik, emakume gutxik iritxi izan oi dute orrelako berexgorik.

* * *

Oraintsu Paris'en billera batean Jean Cocteau'k mikrofonotik itz auek esan zituan: "Maria Callas ta Brigitte Bardot dira gure denbora auetako egiazko bidutzi sakratuak (*monstres sacrès*)."

* * *

Bi gizaseme ezkonduakoak, Anton eta Peru, ongi bazkaldu ondoren —bazkaldu ezezik, edan ere bai—, eztabaidan ari dira emakume-kontuz.

Anton'entzat ezta munduan Marilyn Monroe baño emakume ederragorik. Peru'k berriz ezta Amerika'ko *vamp* ospetsua ain gogoko.

Peru'k azkenean dio:

—Bere biribiltasun nabarmenak kenduko balitzaizkake, ze emango luke Marilyn Monroe'k?

—Nere emaztea —erantzuten du itunki ta burua makurtuaz Anton'ek.

* * *

Oraintsu eskuetara eldu zaigun Paris'ko emakume-aldizkari "Marie France"-ren zenbaki zar-samar batean, argitaratzen da Euskalerria'n gertatzen dan Joseph Peyre'ren novelatxo bat. Obeto esateko, Gipuzkoa'n gertatzen dana: Ketari'n eta Pasai-San Juan'en. *Itxasotik irtendako senar-gai bat* da bere idazpurua, ta senar-emazte-gaiak Joshe Maria —*champion de ancienne régates*— ta Marixu dituzte izenak.

Irakurgaiian Donostia, Mutriku, Bermeo, Lekeitio ta beste emengo erri batzuek ere aitutzen dira. Baita, Marixu'z landara, beste euskal-izeneko emakume bat edo beste: Mayalen, esate baterako.

Literatura bezala ezta geiegi balio. Ez eta Euskalerrri'ko oiturei buruz ere, baño, alaere, lan polita da, ta atsegin-pozez irakurri degu.

* * *

“Gauza ondo jakia da, gizonaekuei iratsi eutseela Jaungoikoak errespeto ta itzal modu bat eureen nagusitasuna agertuten dabena, bafia mutill dantzari ta kortejo zaleetan bere ez dot aurkituten errespeto, ez biar leukeen itzalik. Igaroten nintzala bein fiestia ebillen Plaza batetik, ikusi nituban mutill bi joiazala neskatillak egozan lekura; urreraturik kendu zitubeen eureen txapelak, egin kortesija ta buru makurtutiak; gelditu nintzan puska bat zer ikusiko ete neban, ta orra nun jagiten dan umiak baño larroseta geijago eukan emakume bat; eruan ebeen dantzan ebillenagana, ta zan bere auzoko mutill bat; egin eutsazan onek salto, gora beera ta ongi etorri andijak, iños ikusi bagako prinzesa bat balitz legez; plaza guztija barrez ta txaloka eurai begira; emakumia gaztaña zaarra baño arruago. Aseraturik ikusita ainbeste erotasun mutilletan, alde egin neban andik, esaten nebala neure artian: ze errespeto ta itzal gura dabee euki mutill, imenzione, jesto ta zorakerijarik andijeenak egiten ditubeenak Plaza agirijetan emakume argal batsubeen oifetan? Nun da zentzua ta juijizua? Nun da gizonaren nagusitasuna ta itzala?”. — *Juan José Mogel. Baseerritaar nekezaleentzako eskolia. 1816.*

* * *

Gauza aundi guzien asieran emakume bat arkitzen da beti.—
Lamartine.

MAITE.

